



Paradoxa bilbotarra



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Politologo adituen esanetan, nazio batek ezin dezake berezko nortasunik finkatu, harik eta nazio horren hiriburu edo metropoliak nazio nortasun propioari tinko eusten dion arte.

Gai honen harira, irakurri berri dut Jon Maya dantzari eta koreografo ezagunari egindako elkarrizketa mamitsua *Gara*-n, eta beste gauza interesgarri askoren artean, zera dio Jon Mayak, hemengo kultur proiektuen gabeziak: “Herri bat artikulatzeaz ari bagara, kultur proiektuak ere mahai gainean jarri behar dira”.

Zein da, orduan, gure herrirako, edo Bilbotik hasita, gure ziutaterako agintariak proposatzen diguten kultur proiektua?

Neuk ere hori aztertzeari ekin diot azkenaldian, eta udal hauteskundeon zurrunbiloan bederen, espero nuen gai honen inguruan argitasun zabalagorik eskaintzea alkategaiek, eta bereziki agintean jarraitzeko asmotan dabilenak.

Hamar konpromiso hartu ditu Bilboko alkate denak hurrengo legealdira begira, eta kulturari dagozkionak ez daude lehentasunen artean, hain zuzen ere; zortzi eta bederatzi puntuetan hartzen dituen konpromisoak omen arlo honi begirakoak: nazioarteko ekitaldi handiak erakartzea, eta “hiri moderno honetan euskara gehiago entzun eta euskaraz gehiago egin dadin” asmo-agertze lausoa, zehaztasun gehiagorik gabea.

Bilbok orain duen alkatetzak badauki, ordea, beste arlo batzuetan proiektu zehatzak elikatzen, turismoaren

Bilbok orain duen alkatetzak badauki beste arlo batzuetan proiektu zehatzak elikatzen, turismoaren eremuan, adibidez. Bilbon halakoetara ohituta gauden arren, aztoratu ere egin nau egunotan bertoko Turismo Bulego nagusian aurkitu dudana informazio batek

eremuan, adibidez. Bilbon halakoetara ohituta gauden arren, aztoratu ere egin nau egunotan bertoko Turismo Bulego nagusian aurkitu dudana informazio batek: udalak eta enpresa pribatu indartsuek babesten duten aldizkari dotore baten irakurri baitut *Bilbao Essential* titulodun aldizkari berezia argitara eman dutela japonieraz, 212 orrialdetan Japonia urruneko turista kutiziatuei Bilbo bisitatzeko gonbidapena luzatzen diena. Ekialde urruneko irlako 200 puntutan banatuko dira doan luxuzko aldizkari ongi ilustratuaren aleak, Tokio, Osaka eta Niigata lehenetsiz. Edukiak, zera adierazi dute aldizkariaren aurkezpenean: Bilbon

bizi daitezkeen “top esperientziak” azaldu dituztela bertan, eta argitasunak eman nahian, gastronomia, museoak eta erosketak aipatzen dira top horien barruan.

Hori guztia irakurri eta berehala etorri zait, lehenago ere izango zela, Japonian bertan, gure Botxo honetara etorri asmo zuten turistentzako informazio zuzen eta agian apalagorik, sarri ikusi baititugu, Zazpi Kaleetan kasurako, oinezko turista japoniarrak, argazki kamerez ondo hornituta, hara eta hona etengabe mugitzen. Baita gastronomiaren arloan ere, izango dira japonieraz, oinezko turista ibiltarien mailako gidak. Ez dut ahaztekoa Zazpi Kale hauetako taberna txiki eza-gunean ikusi nuenekoa japoniar bikote gaztea, poltsikotik koaderno txikia atera eta barrako kamarero harrituari apuntea erakutsiz, “txipiroiak saltsa beltzean” eta “barraskiloak bizkaiko saltsan” eskatu eta, eskuak ondo koipetuz eta inguruak zipriztinduz, gogotsu guztion aurrean, ez jan baizik tragatu egin zituztenekoa.

Ze premia zeukan, orduan, Bilboko aginte gorenak era horretako luxuzko gonbidapen hutsal ziztrinak ekialde urrun hartara bidaltzeko? Zer pentsatu behar dute gutaz Japonia urrunean hori ikustean, han bertan ere nortasunaren eta uniformizazio globalaren talaka modu bortitzean pairatzen ari direnean? Hurrengo baten Guggenheimen atarian edo “urrezko moda” dendatan aurkitzen dudana lehen japoniar aberastuari galdetuko diot. ●